

2015-11-27 OSTIRALA
40. ZENBAKIA
URTEAN 50 EURO
WWW.ALEA.EUS



ALEA

arabako aldizkaria

BIZIRIK ELKARTEA

"Indarkeria matxistari aurre egin ahal zaio"

Arratzua-Ubarrundia, pantailara

'Herri txiki, infernu handi' grabatu dute

Euskararen eguna

Ehun proposamen baino gehiago Araban



AZKENEAN, IRITSI DIRA DESKON TUTZA RRAK

BLACK FRIDAY

by **euskaltel**

ABENDUAREN

1 ERA

ARTE BAKARRIK

URTEKO AUKERA!

Orain da Euskaltelera
etortzeko unea

**DENA
3 HILABETEZ
DOAN**



Eta lehendik bezero bazaitugu,
kontratatu produktu berri bat;
doan izango duzu hiru hilabetez.



Ezagutu Black Friday hemen:
www.euskaltel.com/blackfriday | Saltokiak | 1717

euskaltel

2015/12/02 baino lehen egiten diren 15 M-ko edo hortik gorako Zuntzeko oilla berrietarako eta mugikorreko eta/edo TB-ko produktu berrietarako sustapena, betiere Zuntzeko bezero lehendik direnentzat. % 100eko deskontua, hiru hilabetez, kontratatzen diren produktu berrien hileko kuotaetan, 12 hilabeteko iraupen-konpromisoa hartze hutsaizatik. Eskuratu informazioa hemen: www.euskaltel.com/blackfriday

Babesle teknologikoa:



HARPIDETU ZAITEZ

ALEA astero etxean jaso nahi baduzu, harpidetu zaitez. 50 euroren truke, 44 ale jasoko dituzu urtean.

www.alea.eus



Azaleko argazkia:
Aitor Alvarez

Alea 40. zk.



4



14



21



23

- 4 Aernnova eta Condasa, kolokan.
8 Bizirik elkarteko Maitane Cuestarekin elkarriketa.
12 Iritzia. Aitor de la Villa, Txema Rmz. de la Piscina, Itsasegia.

ARABAKO KUADRILLAK

- 14 Gasteiz: Gabonetako ekitaldiak hasiko dira abenduaren 4an.
16 Aiaraaldea: irakurketa errazeko klubean, zailtasunei aurre.
17 Gorbeialdea: 'Herri txiki' saioa, Arratzua-Ubarrundian.
18 Lautada: landa eremuko emakumeek topaketa egingo dute.
19 Añana: munduko leheneneko izarren parkea ireki dute.
20 Mendialdea: Kuadrillako bazterrak ezagutzeko aukera.
21 Trebiñu: abenduko hauteskundeei begira, ekimen berria.
22 Arabako Errioxa: Bastidan euskara hausnarketagai.

HAMAICA SALTSA

- 23 'Amama' eta beste hainbat hitzordu, Euskararen egunerako.
26 Naziek Gasteizen utzitako aztarnak, erakusketa batean.
27 Zozketak.
28 Postontzia.
29 Denbora-pasak.
30 Agenda.



Argitaratzailea
Arabako Alea Komunikazio
Taldea S.L.

Zuzendaria
Aritz Martínez de Luna Urzelai

Erredakzioa
Anakoz Amenabar
Itsaso Estarrona Elizondo
Mirian Biteri

Komertziala
Erlantz Anda

Denbora pasak
Bagabiga

Inprenta
Bidasoa inprimatzeko zentroa

Banaketa
Bidera zerbitzuak

EGOITZA NAGUSIA
Arabako Alea Komunikazio
Taldea S.L.
Escola kalea, 10. 13. bulegoa,
01001, Vitoria-Gasteiz, Araba
Tel.: 945 71 60 09
info@alea.eus

Erredakzioa
erredakzioa@alea.eus

Harpidetzak
harpidetza@alea.eus

Publizitatea
publizitatea@alea.eus
695 63 28 62

Lege Gordailua: VI-32-2015
ISSN: 2386-8961

Tirada: 2.100 ale

Bultzatzaileak:



Laguntzaileak:



www.aiaraaldea.eus

hirinet



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua

Asteko kolaboratzaileak: Aitor Alvarez, Aitor de la Villa, Txema Ramirez de la Piscina, Iker Etxaniz eta Estibxu Ugarte.

ALEA ez du bere gain hartzen IRITZIA sailean, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileak, adierazitako iritzien erantzukizunik.

Lantegiak, harian

Arabako familia askoren etorkizuna hari batetik zintzilik dago; Aernnova eta Condesako 800 langileren lanpostuak eta lan-baldintzak enpresarien berehalako erabakien zain daude, une erabakigarrian. **ITSASO ESTARRONA** GASTEIZ

Mamu bat dute etengabe atzetik. Ziurgabetasunaren fantasma; arriskuaren itzala. Bihar gaur daudena baino okerrago egoteko aukera. Albisteak pasa den astean egin zuen eztanda: Aernnova enpresak bertan behera utzi du Araban 133 langile kaleratzeko txostena. Oraingoz. Hori da langileentzat hitz beldurgarria: oraingoz.

Hegal, Moasa eta Fuasa enpresek bat egin zutenean sortu zen Aernnova, garai bateko Gamesa Aero-nauticatik. Araban sortua, enpresak lantegi berriak ireki zituen lurraldetik kanpo, bai estatuan (Sevilla, Cadiz, Madril), bai Europan (Erresuma Batua, Errumania), baita Batasunetik kanpo ere (Brasil, Mexiko eta Estatu Batuetan). Nazioartekotze prozesu hori kudeatzeko era izan da, langileen aburuz, Arabako lantegiko gainbeheren leherrarazle nagusietako bat.

"Azken bost urteetan, enpresak kanpora eraman ditu proiektu berriak, eta orain arte Araban geneuzkanen zati bat lurraldetik kanpo eraman du ere". Hala azaldu du langileen batzordeko presidenteak, Juan Carlos Gomezek (ELA). Gaur egun, batik-bat hegazkin berrietarako prototipoak egiten dituzte Berantevillako lantegian; alegia, modelo berrien lehenengo alea. Behin eredu hori eginda, produktu horren ekoizpen

100

MILIOI EURO DIRU-LAGUNTZETAN

Eusko Jaurlaritzak 10,5 milioi euroko diru-laguntza zuzenak eman dizkio Aernnovari lkerketa, Garapena eta Berrikuntza proiektuetarako (I+G+b). Sindikatuen arabera, guztira 100 milioi euro publiko jaso ditu finantzazio-tresna ezberdinen bidez, tartean kredituak.

"Enpresak bideragarritasun plan bat martxan jartzen ez badu, ondorio larriak jasango ditugu"

JUAN CARLOS GOMEZ (ELA)
AERNNOVA. LANGILEEN BATZORDEA.

"Arabako estrategikoa da Condesa, eta hala ere geldidago; akordio berriaren letra txikia jakin nahi dugu"

AITOR SAN MARTIN (LAB)
CONDESA FABRIL. LANGILEEN BATZORDEA.

lana beste lantegi batera eramaten du Aernnovak maiz.

Lan-zama gutxitzearekin batera, erregulazio espedienteak iritsi ziren Arabako lantegira. Duela bi urte indarrean duten EREarekin, hilean astebete etxean geratu behar dira langileak, lanagabeziatik kobratzen. Desenpleguaren zakua hustutzen hasia, Juan Carlos Gomezek hitzetan familien egoera "larritzen" hasi da.

Toledon, 145 lanpostu berri

Aernnovako enpresari-taldeak irabaziak ditu, eta aurten mundu mailan 650 milioi euro fakturatzea aurreikusten du. Etekin balantze horrekin, Berantevillako lantegia lehiakorra ez dela argudiatuta 133 langile kaleratuko zituela iragarri zuen azaroaren 6an, eta datozen hiru urteetan plantillaren erdia botatzeko aukera jarri zuen mahai gainean. Horren aldean, beste albiste bat lehertu zen astebetera: Illesca herrian (Toledon) 145 lanpostu berri sortuko ditu taldeak 18 milioi euro inbertituta, A-350 Airbusaren atea fabrikatzeko, Gaztela-Mantxako gobernuarekin akordioa sinatu ostean. Apirilera arte, Gaztela-Mantxako aurrezki kutxa izan da multinazionalaren jabeetako bat, eta abenduaren 20ko hauteskunde orokorreari begira, "hango gobernuari kanpaina egin dio Aernnovak, jaso dituen diru-laguntzen truke", langileen batzordeko presidentearen ustez.

Aernnova, kolokan

Produktua: egitura aeronautikoak.

Arabako lantegiak: Berantevilla (arriskuan), Gasteiz eta Miñao.

Arabako langile kopurua: 566 Berantevillan; Araban, 1.000 inguru.

Langileen batzordea: ELA, CC.OO., LAB, UGT, USO eta CGT (Berantevilla).

Arabatik kanpoko lantegiak:

Sevilla, Cadiz, Toledo, Illescas, Madri, Ourense, Bartzelona, Tarazona, Mexiko, Brasil, EE.BB., Erresuma Batua, Errumania, India.

Esku-hartze publikoa: "100 milioi euro" jaso ditu diru-laguntzetan.

Langileen gaur egungo egoera: erregulazio espedientea dute (EREa); hileroko astebetez daude lan egin gabe, langabeziatik kobratzen.

Aurreikuspenak: 133 langile kaleratzeko mehatxua atzera bota du enpresak oraingo; langileak "beldur" dira, enpresak lantegiaren lan-zama handitzeko neurriak hartu ezean "langileentzat ondorio larriak" aurreikusten dituztelako.



Oskar Biteri (LAB), Juan Carlos Gomez (ELA), Diego Lopez (UGT) eta Rakel Jausoro (LAB).

ITSASO ESTARRONA

Condesa, ziurgabetasuna

Produktua: altzairuzko hodiak.

Arabako lantegiak: Legutio (Condesa Fabril – Arcelor Mittal eta bankuek erosita – eta Condesa Inox).

Arabako langile kopurua: 175 Condesa Fabrilan; eta 33 Inoxen.

Langileen batzordea: Condesa Fabrilan, ELA, LAB eta UGT; Condesa Inoxen, LAB eta ELAko ordezkariak.


Arabatik kanpoko lantegiak:

Lesaka eta Berriobeiti (Nafarroa), Arcelorrek eta bankuek erosita; operazio horretatik kanpo, Mieres (Asturias) eta Sagunto (Valentzia).

Esku-hartze publikoa: Eusko Jaurlaritzarekin zorra du enpresak. Partaidetza-mailegu baten hartzekoduna da Lakua.

Langileen gaur egungo egoera: erregulazio espedientea dute; urtean hainbat egun langabezia daude.

Aurreikuspenak: Condesa Inoxen soldatak jaitsi nahi dizkiete; Fabrilan, Arcelor eta bankuekin lotutako akordioaren emaitzen zain daude.



Iker Agirre (ELA), Aitor San Martín (LAB), Iñigo Espada (LAB).

I. ESTARRONA



Aernnovako langileen protesta, pasa den larunbatean.

MANU ARAKAMA

Hautsak harrotu zituen iragarpenak. Langileek berehala antolatu zituzten mobilizazioak; eta, lehen aldiz, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia sailburuak, Arantxa Tapiak, eta Arabako diputatu nagusiak, Ramiro Gonzalezek, haserrea adierazi zuten. Zentzu horretan, Eusko Jaurlaritzak kaleratze espedientearen aldeko edo kontrako txostena osatzeko ardura zuen, ondoren epaileek auziaren inguruan erabakitzeko. Oraingoan, txosten hori egiteko astirik ere ez du izan: Aernnovak atzera egin du bere asmoekin oraingo, "presio soziala" arrazoituta.

Albiste ona? "Ez". Zorrotza da Juan Carlos Gomez: "Kaleratzeak ezin ditugu baztertu; arriskua handia da oraindik, eta beldur gaude. Enpresak ez badu lantegiaren bidegararritasuna bermatzeko plan bat mahaigaineratzen, ez dugu etorkizunik". Mesfidati dago ere UGTko ordezkarikari Diego Lopez Ortiz de Zarate: "Kaleratzeak bertan behera utzita, etorkizuna bilatuko diote lantegiari, ala agonia luzatuko dute?". Zeregin horretan, "bustitzeko" eskatu diote Jaurlaritzari, "presioa egin eta gardentasuna bermatzeko". Aste honetan bildu da Aernnovako presidentea Arantxa Tapia Ekonomia sailburuarekin, bai eta Diputatu nagusi Ramiro Gonzalezekin ere.

Condesan, albiste zain

"Ziurgabetasuna" da Legutioko Condesa Fabril eta Condesa Inox lantegietako langileen hitz madarikatua. Altzairuzko hodi soldatuen ekoizle

nagusia da Condesa Europan, baina 325 milioiko zorra pilatuta, bankuek kreditu-lerroak moztu zizkion eta, ondorioz, enpresak lehengaia erosteko likidezia galdu zuen, "nahiz eta, multinazional batentzat, ez den horrenbesteko zorra", Aitor San Martin langileen batzordeko ordezkararen hitzetan. Edonola ere, lehengaia agortuta, jarduera eten egin zuen lantegiak, eta EREan ezarri zien langileei.

"Dagoeneko aurreratu digute soldatak jaitsi nahi dizkigutela eta lan-baldintzak okerragotu"

IÑIGO ESPADA AGIRRE
CONDESA INOXEKO ORDEZKARI-SINDIKALA

Egoera larritu, eta hartzekodunen aurre-lehiaketan sartu zen Condesa, alegia, zorrak ordaintzeko prozesu judizialean. Ordea, ez zuen aurrera egin, Condesako hiru lantegi erosteko akordioa sinatu zutelako Arcelor Mittal altzairutegiak eta bankuen *pool* batek (BBVA, Santander, Caixa Bank, Popular, Sabadell eta Bankia). Zehazki, Lesaka, Berriobeiti (Nafarroa) eta Legutioko Condesa Fabril erosi zituen, ez ordea Legutioko Condesa Inox eta Asturias eta Valentziako lantegiak. Enpresaren %67a eskuratu zuten Arcelorrek eta bankuek operazioarekin.

Akordiotik kanpo, Condesa Inoxen dagoeneko argituz doaz haien

egoera, Iñigo Espada Agirre LABeko ordezkariek azaldu duenez: enpresak soldata jaitsi nahi die langileei, eta bestelako lan-baldintza batzuk okerragotu. Aldiz, Fabrilaren ziurtabetasunean jarraitzen dute: zer ekarriko du akordio berriak?

Akordio hori indarrean sartzeko, Europako Lehiakortasunaren Epaitegiak sinatu behar du, eta hartzekodunekin zorra bideratzeko prozesua argitu behar dute epaitegietan ere, Eusko Jaurlaritzarekin duena barne, partaidetza-mailegu baten hartzekoduna baita Lakua. Prozesu hori guztia luzatzen jarraitu bitartean, EREak jota eta "ziurgabe" jarraituko dute langileek: "Oraindik inork ez digu esan zer asmo duten gurekin, zer industria-proiektu duten; akordioaren letra txikia ezagutzeko zain gaude", dio langileen batzordeko ordezkarikari Aitor San Martinek (LAB).

Eusko Jaurlaritzak "eruditik kendu" dela salatu dute batzordeko kideek, eta "arduraz jokatzeko" eskatu diote, "kontuan izanda Araban hodian sektoreak duen pisua, eta Euskadiko beste enpresa batzuegan egoerak eragin dituen kalteak". Enpresarengan galdutako kontrola ere "kezakagarria" da Aitor San Martinentzat: "Lehen hemen hartzen zituzten erabaki-gunea? Luxenburgon? Bombayn? Jaurlaritzak eta Diputazioak hori argi eduki behar dute, eta esku hartu". Egoera berria argitu bitartean, ERE berria ezarriko du enpresak.

INTERNETEN: HIRINET.NET



Lomce hezkuntza erreformari planto egin zioten iaz hainbat eskolatan; irudian, Zabalganako eskolako protesta. | GASTEIZKO GURE HEZKUNTZA PLATAFORMA

"Hezkuntza propio" baten alde

Iruñean, Bilbon eta Donostian bezala, Gasteizen ere "hezkuntza eredu propio baten aldeko mobilizazioa" deitu du larunbaterako Hezkuntza plataformen topaguneak; hiru plazatik kalejira abiatuko dute, Foru enparantzara. **I.ESTARRONA** GASTEIZ

Hezkuntza eredu atzerakoi, merkantilista eta inposatua" dugula iritzi dio Hezkuntza plataformen topaguneak. Hori dela eta, "LOMCE eta bere mozorroen aurrean" hezkuntza "propioa" aldarrikatuko du Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan larunbatean. Gasteizen, hiru zutabetan ekingo diote protestari kalejira giroan, 17:00etan Artiumetik, Diputaziotik

eta zezen-plazaren ondoko Errenazimendu enparantzatik abiatuta. Foru plazan elkartuko dira hiru zutabeak 17:30ean, "argazki erraldoia" egiteko asmoz.

Atxikimendua

Hainbat eragilek atxikimendua adierazi diote protestari, tartean Ikastolen Elkartek, ELA, LAB eta Steilas sindikatuek, Ikasle Abertzaleak erakundeak, eta Sortzen,

Hik Hasi eta Urtxintxa elkarteek. Iaz Lomce hezkuntza erreformaren aurrean egindako mobilizazioen aztarna jarraituz Euskal Herrirako "hezkuntza sistema propioa" aldarrikatzeko "herri curriculumak" eraikiko dituzte larunbatean, "euskalduntze osoa bermatuko duten hizkuntz proiektuekin, hezkidetzan hezteko urratsekin eta jantokiak elikadura burujabetzaren filosofiarekin kudeatzeko neurriekin".



PARRAL TABERNA

San frantzisko xabier kantoia 4, GASTEIZ

MENU BEGETARIANO ASTEAN ZEHAR

KULTUR EMANALDIAK ASTEARTERO GOSARIAK

RAZIO BEGETARIANOAK ASTEBURUETAN

MAITANE CUESTA

BIZIRIK ELKARTEKO KIDEA Indarkeria matxistatik ateratzeko prozesuan bidelagun izan nahi dutela azaldu du Bizirik elkarteko kide Maitane Cuestak; entzun eta babesa emateko taldea izango dela aipatu du. **A. AMENABAR** GASTEIZ

"Publiko eginez, erasotzailea deslegitimatu egiten dugu"

Amesgaiztoa atzean utzi eta, biktima izateaz harago, beste urrats bat egin nahi dute Bizirik elkartean. Euren esperientzia baliatuta, antzeko egoera bizi duten emakumeei babesa eman eta jabekuntza sendotu nahi dutela azaldu du taldeko kide Maitane Cuestak (Gasteiz, 1990). Elkar-tearen ingurukoak Gasteizko Sukuboa aretoan aurkeztuko dituzte larunbat honetan, 13:00etatik aurrera. **Zergatik 'Bizirik'? Zer esanahi du elkarteko kideentzat hitz horrek?**

Bizirik jarraitzen dugula esan nahi dugu, eta ez da gutxi inguruan ikusten dugunarekin. Harreman toxiko batzuen ondoren bizirik gaudela nabarmendu nahi dugu, eta baikortasuna ere erakutsi nahi dugu, bizirik gaudela ozen esan eta bizirik jarraitzeko gogoarekin gainera.

Noiz elkartu zineten lehenengoz?

Talde hau Gasteizko Udaleko Berdintasunerako Zerbitzuaren eta Udaltzaingoaren familia indarkeria eta generoko unitatearen eskutik sortu zen. Autodefentsa feminista ikastaroetan zeuden emakumeak elkartu eta hainbat saioren ostean sortu zen. Gure jabekuntzarako

proposamen moduan sortu zen eta horrekin aurrera egitea erabaki genuen. Momentuz 14 emakume gaude elkartean; zenbaitek oraindik prozesu irekiak dituzte eta tarteka laguntza ematen digute.

Entzutea, kontatzea, babesa ematea. Zeregin horiek nabarmendu dituzue.

Entzutea da elkarteko kideon zeregin nagusia, eta egoera horretatik atera daitekeela gogoratzea, lasaitasuna ematea. Hiltzeko gogoz zaude batzuetan, ez duzu ezer argi ikusten eta antzekoa bizi duen norbait ezagutzen ez baduzu oso gogorra da; familiak eta lagunek lagun-

"Edozein momentutan entzuteko prest izango gara, leihatilan hitzordua eskatu beharrik gabe"

tza ematen dizute baina eurek bizi izan ez badute ez da erraza. Lotsa izaten da gakoetako bat, lotsatuta zaude erasoak jasan eta gero, eta garrantzitsua da norbaitekin enpatia izatea. Lotsak eta beldurrak

geldiarazten zaitu zure errua izan dela pentsatzen duzulako, eta hori da, hain zuzen, emakumeei azaldu nahi dieguna. Ez dela lotsarik izan behar eta edonori gerta dakiokela bizi garen patriarkatu honetan.

Publikoki kontatzeko ere lotsa gainditu behar duzue.

Lotsa eta beldurra. Lotsa gainditu behar da publikoki azaltzeko baina baita beldurra ere, erasotzaileak hortxe inguruan daudelako eta egoten jarraituko dutelako. Baina garrantzitsua da elkartuta egotea eta jabekuntza aurrera eramatea; gutako inori zeozer gertatzen bazaio badakigu nora jo eta badaukagu babesa, eta dagoeneko zerbait ikasi dugu, badakigu zer jasan dezakegun eta zer ez.

Zuen kasuan, halako elkarte baten laguntza faltan izan zenuten?

Bai. Gurasoak, familia, lagunak hor daude laguntzeko baina zaila da... Normalean eraso fisikoen aurretik eraso psikologikoak izaten dira eta zure jendetik urruntzea lortzen dute; hamaika aldiz esaten dizute halako pertsona batekin ez zaudela ondo, uzteko, alde egiteko... baina begiak irekitzen dituzunerako eta zer ger-



Maitane Cuesta, Bizirik elkartearen festa egitarauarekin.

ARITZ MARTÍNEZ DE LUNA

tatu zaizun konturatzen zarenerako zure inguruko batzuek nekatuta alde egin dute.

Zein izaten da konturatzeko momentua?

Beti dago "klik" bat erasotzailearen eta gure artean, harekin segitu nahi ez duzula konturatzen zaren momentu hori. Gurasoengandik urruntzen ari zarenean izan daiteke momentu horietako bat, edo umea arriskuan ikusten duzunean... hainbat "klik" daude; orduan hasten zara pausoak ematen.

Profesionalen osagarri izan nahi du elkarteak?

Bai, ez gara profesionalak, eta bestelako laguntza eskaini nahi dugu. Halako harreman bat uzten duzunean askotan ez duzu dirurik, ez duzu etxerik, ez lanik... eta baliabide horiek izateko laguntza eskaintzen hasi gara, esate batera. Guk geuk ere ezagutzen ez genituen diru laguntzak eta baliabideak daudela ikusi dugu eta emakumeen eskuetan jarri nahi ditugu. Azken batean, edozein momentutan entzuteko prest egongo gara, egunero, leihatilan hitzordurik eskatu beharrik gabe. **Urtarriletik abuztura 372 indarkeria matxista kasu zenbatu dituzt Araban.**

Oraindik lan handia du gizarte honek. Nire ustez txikitatik adierazi behar zaio haurrari zer dagoen ondo eta zer ez, pertsonak garela, berdin emakume edo gizon. Eta, hala ere, zaila izango da estimulu sexista ugarik inguratzen gaituztelako, telebista, abestiak edo pelikulak direla... Eguneko momentu askotan ditugu horiek gure aurrean eta ongi bereizten ez baditugu normalizat hartuko ditugu. Disneyren pelikulek, esaterako, min handia egin digute, estereotipo horiek barneratu ditugulako. Etengabe errepikatzen digute amodioa halakoa dela, guztia eman behar dugula, zure printzea dela... eta argi dago hori ez dela horrela, norbait maite baduzu libre maitatuko duzu eta den moduan. Gizarteko arazo bat dela ikusi behar dugu eta ez bikote arazoa.

Oraindik hainbatek ez dute salaketarik jartzen.

Nik uste salaketa ez dela erabateko konponbidea; askotan burokrazia baino ez da. Urruntze agindua amaitzen denean zer? Eta jakin badakigu hori izan bitartean ere hiltzen gaituztela. Ez dakigu salaketa bidea den ala ez. Elkartean gauden guztiok salaketa jarri genuen, batek izan ezik; ez zuen jarri tratatu txarrak psikologikoak izan zirelako eta hori jasan duela probatzerik ez duelako. Oso triste da, kolpea jaso baino

Larunbatean egingo dute elkartearen aurkezpen-festa .

AITOR ALVAREZ



lehen indarkeria psikologikoa izaten delako beti. Horiek frogatu behar izatea oso nekagarria da eta batzuetan jarri gabe alde egiten dugu.

Zer aholku emango zenioke zuek bizitzakoaren egoera berean izan daitekeen emakume bati?

Kontatzea, batzuetan zaila den arren. Bizitzen ari zarena "normala" den zalantza duzunean aukera ona izan

daiteke egoera hori beste harreman batzuetara eramatea. Demagun aste barruan "eroaldia" izaten duela eta aste bukaeran bonboiak ekartzen dizkizula: hori zuk beste adiskide batzuekin onartuko zenuke? Ez isiltzea da nire aholkua, behar denari kontatzea. Publiko eginez gero erasotzailea deslegitimatzen dugu eta haiek dira lotsa sentitzen dutenak.

ARTULATZAILAK

50.urren

BAIELEK HARTUAK

BAIELEK PUBLIKAK

BAIELEK PRODUKTEK

www.durangokoazoka.eus

Nerabeak, kolpatuta

Arabako 12tik 17 urtera arteko neska gazteen %29k genero indarkeria egoera bateko protagonista izan dela jaso du Sortzen aholkularitzak egin duen ikerketa batek; 16 urteko neskek aitortu dituzte gehien indarkeria egoerak. **A.A. GASTEIZ**

Arabako hogeitaz hamar urteko neska gazteen %29k genero indarkeria egoeraren bateko protagonista izan dela. Aldundiaren ekimenez, Sortzen aholkularitzak egindako txostenetik ateratzen diren ondorioetako bat da hori, Hitz Kolpez kanpainaren barruan.

Trasposos kultura taldeak sei eszena labur antzeztu ditu hogeitaz hamar urteko neska gazteen %29k genero indarkeria egoeraren bateko protagonista izan dela. Aldundiaren ekimenez, Sortzen aholkularitzak egindako txostenetik ateratzen diren ondorioetako bat da hori, Hitz Kolpez kanpainaren barruan.

bat, Sortzen aholkularitzaren eskutik. Kanpaina DBHko lau mailatan egin da (12 urtetik 15 urtera), batxilergoko lehenengo mailan (16 urte) eta lanbide hezkuntzako hainbat mailatan (17 urte edo gehiago).

Emaizetatik ondorioztatu daitekeenez, 16 urteko neskek aitortzen dute gehien genero indarkeria egoerak daudela eta 12 urteko mutilak dira gutxien aitortzen dutenak. Gainera, generoen arteko bereizketak ikusten dira gazteak bizi diren ingurunea matxista den edo ez adierazi behar dutenean; izan ere, nesken %80k baietz erantzun dio galderari horri eta, aldiz, mutilen %60k

esan du baietz. Txostenaren arabera, halaber, desberdin asimilatzen dute genero indarkeria mutilek eta neskek. "Genero indarkeriazko harremana definitzen dutenean, indarkeria motak azpimarratzen dituzte; baita nola gizona eta emakumezkoak pairatu ditzaketela ere. Hala ere, genero indarkeriak oinarri duen kontrola eta botere erabilerak ez dira ageri modu nabarmenean beren hausnarketetan", dio txostenak.

Azterketan, halaber, hainbat gomendio ematen dituzte. Besteak beste, geletan, irakasleek edo gaian aditua den norbaitek gazteekin lan egin behar duela esaten du, "gazteekin kontzeptuak hobeto barneratzeko, argi gelditu ez diren gaiak konpontzeko eta hausnarketa sustatzeko". Era berean, txostenaren arabera, garrantzitsua da hezkuntza programa horietan azalpen bat erantsi matxismoa, feminismoa, arrazismoa edo eskola jazarpena eta genero rola bezalako oinarriak kontzeptuen inguruan.



**Abenduko Zubia eta
GABONAK
VITORIA-GASTEIZen**

**VITORIA
GASTEIZ**
turismo
& convention bureau

www.vitoria-gasteiz.org/turismoa

AITOR DE LA VILLA
IKASLEA



Txistus y olé

Gogoan ditut unibertsitateko lehenengo urteko lagunak, afalosteko mahai-inguru mamitsu horiek. Arabarrak, gipuzkoarrak, mallokar bat, galiziar bat, napar bi... denak gureaz eta hurkoaren kulturaz.

Galiziako lagunak bere herriko dantzak erakutsi zizkidan, eta nik, trukean, nire herrikoak. Nasaialdi bat zen biontzat: herritik kanpo, gure barneko zerbaiten falta nabaritzen genuen, eta horretaz hitz eginez, hutsune hori oroipenez bete. Egun batean, bere herriaz ari ginela, atrebimenduz galdetu

"Eusko kultura" diote, zerbait homogeneoa bailitzan"

nion: aizu, zu espainola sentitzen zara? Baietz erantzun zidan. Baina, oraindik gogoan dudana bardura egin zidan: "Espainola naiz, baina ez nire burua eginarazi nahi izan duten espainola, ni ez bainaiz kopla-zalea, edo zezen-zalea... nire hizkuntza galiziera da".

Ñabardura hori markatuta geratu zitzaidan. "Eusko kultura" diote batzuek, zerbait homogeneoa bailitzan; hemengo txistuak eta trikitixak Ebrotik beheragoko zezenak eta sevillanak bailiran. Lesakako zubigaineko dantza Erriberako jota baino autoktonoagoa omen da, Foruako idi-demak Lizarrako zezenketak baino bertakoagoak eta, txistuek euskolabela duten bitartean, gaitak inork gutxi identifikatzen ditu eusko kulturarekin.

Herri sentimendua nahi bada hedatu, hasi behar dugu ulertzen itsasorik ez den Araban eta Nafarroan, ezin dela jesuiten lehorreratzetik egon. Inork ez gaituela ebanjelizatu behar. Bagarela euskaldunak, "sevillanarik" dantzatzen ez dutenak.

TXEMA RAMIREZ DE LA PISCINA
KAZETARITZA IRAKASLEA



Esaidak

Esaidak bada, esaidak zein duk orduan hire konponbidea? Eh zein?, Hik diplomazia, historia, kultura, heziketa, negozioa ta bestelako pitokeriak aldarrikatzen dituk; baina, ikusiko duk, laster zakur zital nazkagarriok gure seme-alaben buruak erakutsiko zizkigutek harro harro Youtuben. Orduan ere moritoei hemen alfonbra

"Proklamaren egileak 40 urte zituen; itxuraz, oso hemengoa"

gorria jarri behar zaiela esaten jarrai-tuko duk? Rajoyk esango lukeen bezala, "Horraino aipuaren amaiera". Joan den astean etxe ondoko tabernan,

kafe bat hartzen ari nintzela entzundako elkarrizketa izan da. Alboko mahaian nengoen, bakarrik. Sumindutako proklamaren egileak 40 urte inguru zituen; itxuraz, oso hemengoa. Haren solaskidea, isilik. Deseroso nengoen. Alde egin nuen.

Siriako gatazka etxeraino sartu zaigu. Irten-bide militar kirurgikoa defendatzen dutenek irten-bide zibila defendatzen dugunoi presioa egiten digute, arazoari berehalako konponbidea eman behar zaiola esanez. "Bonbardaketak egitea ez badago ondo, zer orduan?"

Lehen laguntzako KITak dauden bezala, inbasio kirurgikorako KITa nahi dute. "Eman alternatiba, esan zein den konponbidea". Nik ez daukat konponbiderik. Hobe esanda, nik ez daukat mendeetan sustatutako gatazka bost astetan konponduko duen formula aplikatzeko eskulibururik. Fantasma izugarri bat Europa osoa zeharkatzen ari da: xenofobia.

MINTZODROMOA ITSASEGIAREN ZINTA



#Pederastia

Abel Azkonaren 'Deshobiratuak' erakusketak eztabaida bizia piztu du Iruñean. "Pederastia" hitza ostia sagaratuekin idatzi duela eta, "erlijio sentimenduen aurkako delitua" ote den argitzeko eskatu dio Nafarroako ordezkariak fiskalari. **A.A.** @anamenabar GASTEIZ



Txerren @txerren

Egunotan artearen indarrean berriro sinesten hasi naiz.



Ana I. Morales @AnaisNi

Kristauek miraritzat hartu behar lukete Azkonaren erakusketa: euren jainko ogi eginak basakeria salatzen duen hitza osatzen.



Mikel Aramburu @mielaranzudaire

Elizgizonek egindako pederastia salatzeke, oso larria eta erabat gaitzesgarria, badago beste modurik artearen bidez.



Jon Ordoñez @jonordoez

Zenbat erreparazio meza egin dira Iruñean azken urteetan pederastia kasuengatik?



Iker Tubia @ikertb

Atzo zentsura salatzen zuten. Gaur zentsura eskatzen dute. Halakoak dira nafar txintxoak. Animo @abelazcona!



Santi Leone @ororostorm

Artistak pederastia seinalatzen duelarik, ikusi nahi ez duenak ostiari begiratzeko dio #ErranairuBerriak

ASTEKO GUTUNA

Parisen gertatuaz

URTZI REGUERO

GASTEIZ

Ostiral gauean loa galarazi zigun Paristik zetorren berriak: eraso terrorista izan zen eta gutxienez 40 hildako zeuden. Hurrengo egunean gorputzaldi txarrarekin jaiki eta albistea are negargarriagoa zen: 120 hildakotik gora zeuden. Zaila da momentu hauetan hitz egokiak aurkitzea, baina Ada Colauk esan bezala, hitz egin beharra dago. Milaka eta milaka pertsonak ekintza higuigarri hau salatu eta beren elkartasuna adierazi zuten: batzuek sare sozialetan sarraskia salatzen, beste batzuek ospitaleetan odola ematen edo behar zutenei beren etxeetako atek irekitzen. Zalantzarik gabe, langile

klasearen elkartasunak ez du mugarik.

Agintari politikoen, burgesiaren eta bankarrien lotsagabekeriak ere ez du mugarik. Lotsagarria da egun hauetan erabili duten diskurtsoa: bakea, demokrazia, askatasuna... baliorik gabeko hitzak dira beren ahotan. Tipula negarra da egun hauetan egin dutena. Ez da albiste berria Al-Qaeda, ISIS eta antzeko talde islamistak Mendebaldeko potentzia inperialistek sortu zituztela. 80ko hamarkadan AEBko agintariak finantzatu zuten Al-Qaeda Sobietar Batasunari aurre egiteko eta, azken urteetan, Europako eta AEBetako agintariak eskuzabal finantzatu dute ISIS Udaberri Arabiarra izenez ezagutzen den prozesu iraultzailea geldiarazteko. Hillary Clintonek onartu zuen AEBetako

Gobernuak dirua ematen ziola ISISi eta Holandek ere (larunbatean negar zotinka zegoen berbera) ISIS diruz laguntzen zuela onartu zuen.

Ostiralean Paris zena, Beirut zen bezperan eta Sinai biharamu-nean. Frantziako Gobernuak ere ez du asko itxaron eta igandean Sirian ISISen gune den hiri bat bonbardatu zuen ordu betez. Gisa bereko sarraskiak etengabeak dira: batzuetan potentzia inperialistek finantzaturako talde jihadistak daude atzean, besteetan gobernuak babestutako talde paramilitarrak.

Sarraski hauen guztien atzean interes berbera dago: enpresa eta multinazional handien arteko borroka. Besteak beste munduko merkatuaren zati handiena eta petrolioaren kontrola eskuratzeko

piztu duten gerra da jatorrian dagoena. Eurek sortu dute gerra, eta guk jarri ditugu biktimak. Leninek esan zuen kapitalismoa bukaerarik ez duen izugarrikeria dela; eta horixe ikusten ari gara gure begien aurrean: gerrak, gerratik babeste-ko ihesi doazen errefuxiatuak, miseria, langabezia, prekarietatea, heriotzak... Hori dela eta, sarraski, gerra inperialista eta ekintza terrorista hauek gogor salatzearekin batera, beharrezkoa da kapitalismoaren aurka tinko borrokatzea eta alternatiba iraultzailea mahai gainean jartzea.

Parte hartzeko:

erredakzioa@alea.eus
Gehienez, 1.500
karaktere. ALEAK
eskubidea du gutunak
laburtzeko eta HIRINET.
NET-en elkarbanatzeko.



Gasteizko Iradier Arenan zezenketen aurka PACMA taldeak 2013an egindako mobilizazioa. | PACMA

'Animalien tratu txarrik gabeko hirian', zezenketak

Gorka Urtaranen udal gobernuak ez du bertan behera utziko Gasteizko Iradier Arenan zezenketak egiteko kontratua

ITSASO ESTARRONA

GASTEIZ

"Gasteizko Udalak ez du bere udal-guneen erabilera baimenduko, animaliei tratu txarra ematea suposatzen duten ekitaldi publikoetarako". *Gasteiz animalien tratu txarrik gabeko hiri* izendatzeko adierazpenak halaxe dio. Hitz horiekin kontraesanean, Iradier Arenan zezenketak egongo dira 2016an.

Udalaren osoko bilkura irailean onartu zuen

animalien aldeko adierazpen ez-loteslea, Irabazi koalizioaren ekimenez (Equo eta Ezker Anitza) eta EH Bildu eta Hemen Gaude (Podemos) taldeen aldeko botoekin. EAJ eta PSE abstenitu egin ziren, eta PP-k kontra bozkatu.

Adierazpen horrek dioenarekin lotuta, EH Bilduk mozioa aurkeztuko du Gasteizko osoko bilkuran azaroaren 27an, ostirala, zezenketak bertan behera uzteko. Ordea,

Gorka Urtaranen gobernuak dagoeneko adierazi du 2016ko korridak mantenduko dituela, 2014an bi urterako kontratua sinatu zuelako Udalak Coso de Badajoz enpresarekin.

Kontratu hori bertan behera uzteko, kalte-ordaina ordaindu beharko lioke Udalak Jose Cutiño enpresariari, eta gobernuak dio Gasteizek orain ezin diola ordainketa horri aurre egin. PP eta sozialistak ere datozen udako

zezenketak bertan behera uztearen aurka agertu dira.

2017an, erabakitzeke

2016az harago, zezenketak beste bi urtez luzatzeko aukera ematen du gaur egun indarrean dagoen kontratuak. Hori dela eta, 2017tik aurrera zezenketak baimentzen jarraitzeko asmoa ote duen argitzeko eskatu diote EH Bilduk eta Irabazik Gorka Urtaran alkateari.

Abenduaren 4an abiatuko da Gabonetako egitaraua

Argiak piztuko dituzte datorren ostiralean, eta izotz pista abenduaren 12an irekiko dute

I. ESTARRONA

GASTEIZ

Hasi da Eguberrietarako atzera kontua. Gasteizen, datorren abenduaren 4an (ostirala) hasiko da egitarau ofiziala. Kaleko argiak piztu eta Floridako jaiotza inauguratuko du Udalak, aurten eskultura berriarekin: iaz bisitariek utzitako txanponekin (10.600 euro), artzain emakume bat eta lau ahuntz egin ditu Marian Escalera eskultoreak.

Izotz pista eta txirrista abenduaren 12an irekiko dituzte Andre Mari Zuriaren plazan. Handik

hamar egunera, abenduaren 22an, Arabako abesbatzen federazioaren programazioa hasiko da: 25 emanaldi eskainiko dituzte lurraldeko abesbatzek, Gasteizko plaza eta kaleetan Gabonetako kantak abestuz. Horiez gain, zortzi fanfarrek girotuko dute erdialdea.

Umeentzat ikuskizunak

Olentzerok opariak banatu eta hurrengo egunean, abenduaren 26an, umeentzako emankizunen egitaraua hasiko da. Mendizorrotzan lau ikuskizun eskainiko dituzte: *La abe-*

ja maya, Kontukantari, Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoak eta Errusiar gazteen balleta; bestalde, Butaca Txikia programaren baitan beste zortzi ikuskizun eskainiko dituzte gizarte etxeek, horien artean haurtxoentzat *Sensacional* emankizuna.

Hitzordu guztien artean arrakastatsuenak Olentzero eta Maridomingi eta Errege magoen desfileak izango dira, 300 pertsonen baino gehiagok osatuta. Aurten, haurrek Olentzero udaletxean bisitatzeko ordutegia luzatu dute.



Floridako figura berria. | ALEA



QUINTAS

ZUBI BERRIA BIZIKLETAN PASATZEKO

Abenduaren 5etik aurrera, antzinako Vasco-Navarro trenaren bide berdean zubi berria erabili ahal izango dute txirrindulariek eta oinezkoek. Olaranben pasabide berria jartzen hasi zen asteartean Diputazioa, Mendiola eta

Otazu artean, trafikoan mozketak eraginez. Egitura gorri berriari esker, orain arte errepidean jasaten zituzten arriskuak saihestuko dituzte erabiltzaileek. Guztira, zubiak 72.000 kiloko pisua du, eta 140 metroko luzeera.



Irakurketa errazera egokitutako liburuak erabiltzen dituzte Amurrioren eta Laudion sortu berri diren bi taldeetan. | TXABI ALVARADO

Irakurketa errazeko bi klub berri abian

Irakurtzeko zailtasunak dituztenentzat bi talde sortu ditu APDEMAk Amurrioren eta Laudion

TXABI ALVARADO BAÑARES

AMURRIO

Asteartea da Amurrioko Kultur Etxean. Areto nagusian daudenek bukatu berri dute irakurtzen ari diren liburuaren bigarren atala, eta horrekin batera amaitutzat eman dute Irakurketa errazeko klubaren astea saioa. "Momentuz bi saio baino ez ditugu egin", adierazi du klubaren dinamizatzailea den Nekane Estrellak, "baina taldea oso gustura egon da, eta horrela jarraituko dugu".

APDEMAk (Aniztasun funtzionala dute pertsonen Arabako elkarteak) sustatutako proiektua da kluba. Orain arte Gasteizen baino ez dute egin ekimena, baina aurtan Aiaraldera zabaldutako, Amurrio eta Laudion talde bana sortuz.

Kapitain ausartak da irakurtzen ari diren liburua. Abenturazko eleberri bat da, Rudyard Kipling-ek idatzitakoa. Esku artean duten bertsoa, baina, ez da idazle britainiarrik XIX. mendearen amaieran idatzitakoa, irakurketa errazera egokitutakoa baizik. Zer ezberdintasun dago, baina, bien artean? "Irakurketa errazera egokitutako liburuak pertsona guztiei zuzenduak daude eta irakurtzeko zailtasunak dituztenentzat oso aberasgarriak dira; irakurtzeko eskubidea bermatzen die", azaldu du Estrellak. Oso liburu bisuala da: ilustrazioak ditu, eta ohikoa baino letra handiagoa. Hitz batzuk urdinez idatziak daude, orriaren beheko aldean hitzaren esanahia

"Liburuek letra handiagoa dute, eta ilustrazioak; lerroak ere bereziak dira"

NEKANE ESTRELLA
KLUBEKO DINAMIZATZAILEA

"Hitz egitea kostatzen zait baina pazientziarekin egiten dugu aurrera"

JOXEAN MENDIBIL
IRAKURKETA KLUBEKO KIDEA

irakurri daitekeela adierazteko. Lerroak ere bereziak dira: ez dira orri amaieraraino iristen. Testua ozenki irakurtzean airea hartzeko egin beharreko geldiuneek marka-

tzen dute lerroen amaiera. Irakurketa klubeko kideak pozik daude ekimenarekin. "Horrelako zerbait egiten dugun lehen aldia da, eta oso entretenigarria iruditzen zait", adierazi du Kontxi Jauregik. Joxean Mendibilek ere bat egiten du baieztapen horrekin: "Niretzako oso ondo dago, hitz egitea kostatzen zaidalako, baina hemen, elkarren artean, pazientzia izanez egiten dugulako aurrera".

Irakurtzetik harago

Ozen irakurtzen dute liburua, zirkuluan jarrita eta elkarren artean txandakatuz. Nekane Estrellak azaldu du ez dutela irakurketa erritmo bat ezartzen, ez eta saio guztietara joatea eskatzen ere. "Bakoitzaren erritmoa errespetatzen dugu, ondo pasatzea da helburu nagusia". Ez dira irakurketa kolektibo hutsera muga-tzen. Irakurtzen ari diren mintzatzeko tarteak ere izaten dute: "Irakurketak aurrera egin ahala esperientzia pertsonalak azalazten dira". Jende gehiago animatzen bada, talde berri bat sortzeko aukera aztertzen ari dira.



Azaroaren 19an grabatu zuten herritarrei eskainitako emanaldia; jende dezente batu zen Duranako Sologana gizarte etxean. | MIRIAN BITERI

Herri txiki... Arratzua-Ubarrundia handi!

Igandean eskainiko duten saiorako grabazioak egiten ibili ziren azaroaren 16an eta 19an

MIRIAN BITERI

DURANA

Azken asteotan, aztoratuta ibili dira Arratzua-Ubarrundian, *Herri Txiki, infernu handi* saioaren grabazioa dela eta. Bertako herritarren bizipenak jasotzeko asmoz, pasa den azaroaren 16an egun osoa eman zuten bertan grabatzen.

Kanpoko grabaketak egin zituzten egun horretan, eta programatik jakinarazi dutenez, saio "berezia" izan da Arratzua-Ubarrundiakoa. Izan ere, lehen aldia izan da herri txiki ezberdinez osatutako udalerria bisitatu dutela. Saioko aurkezle Mikel Pagadi eta Zuhaitz Gurrutxaga sidekar batean goizean goiz iritsi ziren Duranara eta egun osoa eman zuten ber-

tan. Pagadik erronka berezia izan zuen saioan zehar; hain zuzen, udalerriko herri guztiak bisitatzea. Eta horretarako, Carlos eta bere sidekarra erabili zituen. Duranan hasi eta Uribarri-Ganboaraino bidaiatu zuen eta han,

belaontzi batean sartu eta Zuhatzako irla eta Landa herriko urpeko arrastoak ezagutuz amaitu zuen. Bestalde, Duranako artzain gaztea eta bertako kapatailea ere ezagutu zituen.

Bestalde, Gurrutxagak udalerriko lagun asko eza-



Basurdeekin ere egin zuen berba Pagadik. | ETB

gutzeko aukera izan zuen. Gasteizko Olentzeroren etxean izan zen, Betolatzako Garbiñe euskaldun zaharraren etxean ere izan zen, eta baita Ikasbidea ikastola bisitatu ere. Bizikleta hartu eta Gasteizera ere hurbildu zen erosketak egitera Arratzuako bizilagun baten laguntzaz.

Bakarriketak ostegunean

Kanpo grabazioak astelehenean egin zituzten, eta ostegun iluntzean jendaurreko saioa, Duranako Sologana gizarte etxean. Askotariko adineko jendea elkartu zen han; tartean, saioan parte hartu zuten herritarrak. Saio honetan ere Sebastian Lizaso bertsolariaren laguntza izan zuten Pagadik eta Gurrutxagak. Besteak beste, bertso dotoreak botatzen Betolatzako euskaldun zaharra eta ikastola oinarri zituela.

Saiokoak "pozik" geratu dira emaitzarekin: "Saio berezia eta polita izan zen eta irudi benetan ikusgarriak harrapatzeko aukera izan genuen". Onena, zalanza barik, oraingo igandean, azaroak 29, 21:45ean, ETB1 jartzea.



Hainbat lantaldetan aztertuko dute emakumeen "osasuna"; irudian, 2014ko topaketa bat. | ALEA

Emakumeen osasuna aztertuko dute Agurainen

Landa Eremuko Emakumeen Sareak antolatuta, topaketa egingo dute larunbatean

ANAKOZ AMENABAR @anamenabar
AGURAIN

Emakumeen osasuna izango dute solasgai larunbatean, hilaren 28an, Agurainen. Arabako Landa Eremuko Emakumeen Sareak antolatuta, "osasuna" modurik zabalenean aztertzeke aukera izango dute Harresi aretoan biltzen direnek. "Lagunekin egoteko tarte bilatzea, ariketa egitea, aisialdiaz disfrutatzea... hori guztia ere bada osasuna, askotan ahazten dugun arren, eta horrek duen garrantzia nabarmenduko dugu", azaldu du sareko kide Leonor Sastrek.

Erakundeetako ordezkariak emango diote hasiera ekitaldiari, 10:00etan; Beatriz Artolazabal Gizarte Zerbitzuen Saileko diputatua, Izaskun Landaia Emakundeko lehendakaria, Iñaki Beraza Aguraingo alkatea eta Karmele

Peña emakumeen sareko bozeramailea izango dira ekitaldia aurkeztzen. Jarraian, *Emakumeak, gure osasunaren protagonista ote gara?* galderari erantzuten saiatuko da Esperanza Aguilá; erizaina da eta genero ikuspegia ardatz duen osasuna sustatzen aditua.

Lantaldeak

Hamaiketakoaren ostean, hainbat lantalde antolatuko dituzte osasunaren alor desberdinak jorratzeko. "Ikasitakoak egunerokoan praktikan jartzeko zer nolako aukerak ditugun aztertu eta norberaren esperientzia kontatzeko tarte izango dira taldeak, aberasgarria izango da guztiontzat", aipatu du Sastrek.

Elikadura, egiten duten kirola, aisialdian gustuko dutena edota seme-alabeekin igarotzen duten den-

bora izango dituzte solasgai, besteak beste, Sastrek gogoratu moduan. "Azken batean, bizitzen ikasi nahi dugu, edadetuak bagara ere; gure onena ematen ikasi nahi dugu, gu protagonista izaten eta gehiago disfrutatzen".

Sareko kideen esanetan, berdintasuna bultzatzeko helburuarekin, beharrezkoak dira halako topaketak antolatu eta urte guztian zehar jarduerekin jarraitzea. 80 emakumek baino gehiagok eman dute izena dagoeneko larunbatekoan parte hartzeko. Hamazazpi urte beteko dituzte aurten jardunaldi hauek eta elkartean ari direnek bilakaera "onuragarria" bizi izan dutela azaldu dute. "Lehen gutako asko ez ginen etxetik ateratzen, eta elkarteari esker bultzada izan dugu; gure artean elkartzeko ohitura hartu dugu".

Herritarren proposamenak bilduko dituzte Barrundian

A. AMENABAR
BARRUNDIA

Barrundiako Udalak aukera eman nahi die herritarrei hurrengo urteko aurrekontu egitasmoan parte hartzeko. Herritarren proposamenekin osatu nahi dute zati bat. Proposamen fitxa bete eta udaletxean aurkeztu dezakete abenduaren 11 baino lehen.

Egitasmoaren berri emateko, gainera, hainbat bilera antolatu dituzte; Gebara eta Marietan egin ondoren, Ozeta -abenduak 2- eta Heredian -abenduak 3- izango dira.

Barnetegia izango dute bertsolari gazteek Gabonetan

A. AMENABAR
AGURAIN

Gabonetako oporraldia aprobetxatuta, bertsolaritzaren bidez euskararen erabilera bultzatu eta ondare kulturala ezagutzeko aukera izango dute Lautadako bertsolari gazteek. Abenduaren 28, 29 eta 30ean barnetegia izango dute Labrazako aterpetxean.

Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailako haurrek parte hartu ahal izango dute Arabako Errioxan antolatuko den topaketan. Abenduaren 4ra arte eman daiteke izena Lautadako Kuadrillako udaletxeetan.

Munduko lehenengo izarren parkea izendatu dute Badaiaiko lorategia

Plenisferia egin dute Santa Katalinako lorategi botanikoan; herritarren artean zerua behatzeko zaletasuna sustatuko dute

ESTITXU UGARTE @estitxuugarte

TRESPONDE

Badaia mendilerroan, XIII. mendeko monasterio baten hondakinen artean, Gas-teiztik hamar bat kilometrorra, munduko lehen izarren parkea dago. Lau hektareako Santa Katalina lorategi botanikoan milatik gora landare, zuhaitz eta lorek inguratuta behaketa astronomikoa egiteko baldintza paregabeak daudela ziurtatu berri du Startlight Fundazioak.

Irabazi gabeko fundazioa Kanarietako Astrofisika Institutuak sortu zuen "astronomia hedatu, gaueko zerua zaindu eta izarrak behatzeko eskubidearen alde lan egiteko". Unescoren, Turismoaren Munduko Erakundearen eta Nazioarteko Astronomia Batasunaren babes du. Fundazioak ziurtagirien sistema bat sortu du zeruaren kalitate bikaina duten eta izarren behaketa ondare gisa txertatzen dituzten tokiak nabarmentzeko. Sailkapenaren arabera, "izarren parkeak" gaueko zerua bereziki zaintzen duten udalerrietan aukeratzan dira eta jarduera astronomikoki antolatze-ko aukera bikaina ematen duten tokiak dira. Santa Katalina lorategia sailkapen horretan sartu den munduko lehen gunea da.

Iruña Okako Udalak bultzatu du izendapena Santa Katalinako Lorategi Botanikoaren Lagunen elkartearekin batera eta Arabako Aldundiaren diru-laguntzarekin. Hemendik



Ilargi edo eguzki eklipseak eta izar euriak ikusteko saioak antolatuko dituzte. | PHOTO.OK

aurrera bisitarien eta herritarren artean zerua behatzeko zaletasuna sustatuko dute baita astronomiaren inguruko jakituria eta zerua babestearen aldeko ekimenak ere. Gainera lorategia Añana eskualdeko turismo gune gisa indartu nahi dute eta astro-turismoa bultzatu.

Plenisferioa

Dagoeneko zeru izartsuaz gozatzeko egokia den parkearen muino ilunenetarikoa batean zeruko planisferio bat prestatu dute. Iparrizarra du erreferen-

tzia eta konstelazio zirkunpolarrak markatzen ditu, Kanariar uharteetako La Palmako izar behatokiaren ereduari jarraituta. Azalpen panela prestatu dute bisitariarentzat.

Halaber, Santa Katalina izarren parkea izendatu dutela ospatzeko hainbat jarduera antolatu dituzte. Igande honetan, esaterako, haurrentzat eta gazteentzat izarrak ezagutzeko lantegia egingo dute. 360 graduko planetario dira etorkizunean eta hitzaldiak eta gaueko behaketak anto-

latuko dituzte kometak, ilargi edo eguzki eklipseak, planeten lerrokadurak eta izar euriak ikusteko.

Haatik, Añana Kua-drillan astro-turismoarekin lotutako ekimenak ez dira Santa Katalinara mugatuko. Diputazioak Valderejoko parke naturala ere Starlight sailkapenean sartzeko proposatu du eta horretan lanean ari da. Josean Galera Ingurumen diputatuak adierazi duenez "Argi kutsadura gutxiko eremua da eta leku ezin hobea zeruari begiratzeko".



Igande goizean Urizaharrako hirigune historikoa ezagutzeko ibilaldia antolatu du Kuadrillak. | ALEA

Mendialdea gertutik ezagutzeko bisitak prest

Urizaharra, Antoñana, Kontrasta, Lagran eta Igoringo sakanara txangoak antolatu dituzte

MIRIAN BITERI

KANPEZU

Neguko asteburuak etxean geratzeko direla uste dutenak oker dabilta. Abenduaren 12ra bitartean, askotariko bisita gidatuak antolatu ditu Arabako

Mendialdeko kuadrillak. Igande honetan, esaterako, Urizaharrako hirigune historikoa ezagutzeko aukera izango da. Besteak beste, herrigunea inguratzen duen harresia, bi dorre handiz babestutako

hegoaldeko ataria eta eraikin esanguratsuenak ikusiko dituzte bisitariek.

Abenduko zubian hiru bisita izango dira. Abenduaren 5ean, Kanpezuko udalerrian dagoen Antoñanara izango da bisita. Erdi

Aroko hiribildua da, 1181. urtean sortua, eta Monumentu Multzo izendatu zuten 1995ean.

Abenduaren 6an, Harañera egingo du salto egitarauak; hain justu, Kontrastara. Herribildua eta inguruko sakanak bisitatuko dira.

Abenduaren 7an, Lagranen txanda izango da; Ardoaren eta Arrainaren ibilbidearen interpretazio zentroa eta Ega errekaaren iturburua ikusiko dituzte bisitariek. Egitarauari amaiera emateko, abenduaren 12an, Arraia-Maeztuko Musitu eta Roitegi artean eta Iturrietako mendien artean dagoen dagoen Igoringo sakana ikusteko aukera eskainiko du Kuadrillak; Arabako gotorleku basatienetako bat.

Irteerak egin nahi dituztenak Mendialdeko Kuadrillarekin jarri behar dira harremanetan, 945- 40 54 24 telefono zenbakira deituta edo info@monta-naalavesa.com helbidera idatzita. Bisita guztiak 10:00etan hasiko dira, eta hiruzpalau orduz luzatuko dira. Plaza kopurua mugatua da.

EUSKARA

MAEZTUKO EUSKARA IKASLEAK

Kanpezun eta Lagranen ez ezik, Maeztun ere sortu da aurtengo ikasturtean euskara taldea. AEK-ko Miren Garmendiak gidatutako taldea zazpi lagunek osatzen dute; B2 eta C1 prestatzen ari diren gurasoak gehienak. Ondoko irudian ikusten denez, gustura doaz eskolatar.



Arraia-Maeztuko udaletxean batzen da taldea astelehen eta asteazken goizetan. | MAEZTUKO UDALA

Ignacio Portilla: "Ez dugu onartuko adabakien egoera honekin jarraitzea"

Trebiñuko Konderriko Udalak ekinbide berria onartu du; Madrilgo Kongresura Lege Organiko berria eraman nahi dute

MIRIAN BITERI

TREBIÑU

Trebiñuko Konderriko Udala Arabara batzeko saiakera berria dabil egiten, abenduaren 20an Espainiako Kongresurako hauteskundeak daudela aprobetxatuta. Joan den astean, ekinbidea onartu zuten osoko bilkuran, "muga administratiboak aldatzeko ardura eta eskumena duten instituzio bakarrak" Espainiako Gorteak dutela adieraziz. PPko bi zinegotziek izan ezik, gainerako zinegotzi guztiek babestu zuten mozioa.

Gaztela eta Leongo Gobernuak eta Burgosko Diputazioak segregazioaren aldeko iritzia eman behar dute erreferendum bat egin ahal izateko. Beto hori saihestu gura du Trebiñuko Konderriko Udalak, mugak aldatzeko eskumena duten erakunde bakarrak Espainiako Gorteak direla esanez.

Aldaketaren zain

Trebiñuko zinegotzi eta anxioaren batzordearen koordinatzaile Ignacio Portillak azaldu du legealdi berria datorrela, eta, joan den urtean egin zuten bezala, berririo ere saiaturko direla Espainiako Gorteen bidez Trebiñu Arabara batzen. Uste dute hauteskunde ondotik, alderdi politikoek Kongresuan lortuko duten ordezkaritza ez dela gaur egungoa bezalakoa izango, eta hortaz, Trebiñuri buruzko Lege Organiko berria aurrera ateratzeko aukera egongo dela.



Ignacio Portilla anxioaren batzordearen koordinatzailea da. | ITSASO ESTARRONA

"Lege Organiko berriak argudio sendoagoak izango ditu"

"Eragiten diguten lege guztiak bertan behera utzi ditzatela nahi dugu"

Iaz Espainiako Kongresuak atea itxi zion Trebiñu Burgostik atera eta Araban integratzeko bideari. Horren bueltan, honakoa nabarmendu du trebiñarrak: "Behin-betiko irtenbidea lortze aldera, Lege Organiko berria aurkeztuko dugu, baina iazkoa ez bezala, oraingoan argudio sendoagoak sartuko ditugu horretan; egun behin-behi-

neko izaera duten zerbitzuen bermatzean oinarriko dira arrazoi horiek".

Horrekin lotuta, Portillak gogorarazi du aurtengo martxoan Trebiñuko Konderriko udalbatzak urtebeteko epea eman ziela Jaurlaritzak eta Gaztela eta Leongo Gobernuak osasun, hezkuntza, gizarte zerbitzu eta azpiegitura mailako zerbitzuen inguruan sinatutako itunei. Pasa den astean onartutako ekinbidean Kongresuari eskatzen zaio akordio hori berretsiz dezala.

Bilerak aste honetatik

Guzti horren tramitazioa bultzatze aldera, auzian inplikaturik dauden eragileekin batzen hasi dira Trebiñukoak. Besteak beste, Euskal Herriko zein Madrilgo ordezkaritza

izango duten alderdi politikoekin, bertako zein Gaztela Leongo erakundeekin eta Espainiako Gobernuarekin batzeko asmoa dute urtarilerara bitartean.

Bertako alderdi politikoekin elkartzen hasi dira oraingo astean. "Elkartzen garen guztiei bidegabekeri eta zuzenbide mailan bizi dugun segurtasun-gabezia honen aurrean duten iritzia eskatuko diegu, argi eta garbi esan dezatela. Erronka da eragiten diguten lege guztiak bertan behera utzi ditzatela; ez dugu onartuko indarrean dauden adabakiekin jarraitzea". Portillak gaineratu du eskumena dutenei Madrilgo Gorteetan Lege Organikoa tramitatu dezatela ere eskatuko dietela.

Euskarari buruzko hausnarketa egingo dute ostiralean Bastidan

Egoera hobetzeko bilera parte-hartzailea deitu du Arabako Errioxako Euskaltzaleak eta Euskara Zerbitzuak izeneko lantaldeak

MIRIAN BITERI

BASTIDA

Arabako Errioxa eta Bastida mailan, euskarak duen osasuna aztertzeko batzar parte-hartzailea deitu dute ostiralean, hilak 27, Bastidako ekitaldi aretoan, 17:00etan. Bi orduko iraupena izango duen bileran azterketa sakona egingo dute parte-hartzaileek, Arabako Errioxako Aholku Batzordea gida-lagun izango dutela.

Horren helburua da euskarari buruzko hausnarketa egitea herrietako eragile eta biztanleekin batera. Besteak beste, zer egoera bizi duen euskarak herrian eta Arabako Errioxan, zenbat eragile dagoen euskararen ezagupen edo erabileran eragiten, gazteek nola ikusten duten

euskararen egoera eta haiek zer egin nahi edo ahalko luketen, euskaraz ez jakin arren edo euskararen alde zerbait egin daitekeen aztertuko dute ostiraleko solasaldian.

Laugarrena

Ez da Bastidakoa Arabako Errioxa mailan horrelako bilera antolatzen den lehen; izan ere, Oionen, Lapueblan eta Samaniegon egin izan dira-eta aurretik. Oraingo honetan Bastidako honako eragileak elkartu dira: Bastidako Udala, ikastola, eskola, Komertzio teknikaria, IKA Errioxa euskaltegia eta Kuadrillako Euskara Zerbitzua.

Azken horretako euskara teknikari Leire Sueskunek esan du batzarrak bi atal izango dituela:

lehenengoa, azalpenekoa; eta bigarrena, berriz, lan egitekoa. Honakoa azaldu du: "Lehenengoan euskararen egoeraz jabetzeko lau zertzelada emango ditugu; besteak beste, datu kuantitatibo eta kualitatiboak eskainiko ditugu. Bigarren zatian bilerara bertaratzen direnak lantaldetan jarriko ditugu hausnartu dezaten Bastidan euskararen egoera hobetzeko egin daitekeenaz. Lantaldetan hausnartutakoa gero guztion artean partekatuko dugu".

Bastidako Plana

Jarraian, egingarria den guzti horri itxura eman eta egikaritzeko lantalde bat edo eragile zehatzak identifikatu nahi dituzte. Zertarako? "Balizko Bas-

tidako plana edo ekintza multzoa osatzeko. Proiektu polita eta interesgarria izango dela aurreikusten dugu pertsonak egingo ditugulako proiektuaren parte", azpimarratu du Sueskunek.

Arabako Errioxako euskaltzaleak eta Euskara Zerbitzua izeneko lantaldeko eragileak izango dira bilera gidatzeaz arduratuko direnak. Sueskunek azaldu du lantalde hori, azken batean, Arabako Errioxako Euskararen Aholku batzordea dela: euskararen erabileran eragiten ari diren askotariko esparruetako lagun taldea, hala nola, irakaskuntza, helduen euskalduntzea, administrazioa, kirola zein kultura alorretan dabil-tzanak.



Samaniegon ere egin izan dute horrelako bilera parte-hartzailea; goiko irudian ikusten den bezala, han ere lantaldeak egin zituzten. | ALEA



Gasteizko egitarauaren aurkezpena, astelehenean.

MIRIAN BITERI

Egun bat gehi 364

Euskararen nazioarteko eguna ospatuko da datorren abenduaren 3an; egun bat, "Euskarak 365 egun" dituela nabarmentzeko. Araban, ehun ekimen baino gehiago antolatu dituzte data esanguratsu hori ardatz. **ITSASO ESTARRONA** GASTEIZ

Ospatzeko eguna, aldarrikatzeko eguna, ikustarazteko eguna, elkartzeko eguna, atzera begiratzekoa, aurrera egiten jarraitzekoa; erpin asko dituen data ospatuko da datorren abenduaren 3an, osteguna: Euskararen nazioarteko eguna.

Euskarak 365 egun lelopean, Araban dagoeneko hasi dira data esanguratsu honekin lotutako ekimenak. Guztira, ehun jarduera baino gehiago antolatu dituzte euskara elkarteek, kultur eragileek eta instituzioek.

Badaude hainbat herritan errepikatuko diren hitzorduak: Oscar sarietarako hautagai izendatu duten *Amama* filma herriz-herri ibiliko da eta, era berean, euskararen erabile-

1949an ezarrita, egonkortuz doa

Kondairak dio Frantzisko Xabierkoa euskal misiolari unibertsalak hil aurreko azken hitzak euskaraz egin zituela. Abenduaren 3 batean zendu zen, 1552an, eta egun hori 'Euskararen egun' izendatu zuen Eusko Ikaskuntzak 1949an. Jaurlaritzak eta Euskaltzaindiak 1995ean instituzionalizatu zuten nazioarteko eguna.

ra soziala sustatzeko *Zergatik ez?* tailerrak egingo dituzte lurraldeko zenbait txokotan, besteak beste Gasteizko campusean, Ondategin, Artzienegian eta Zalduondon.

Gasteizen, ostiralean abiatuko da egitaraua (azaroaren 27an). Euskararen egunean bertan, *Euskaldunen desiren zuhaitza* inauguratuko du ALEAK Oihaneder Euskararen Etxean 18:45ean. Ondoren, kandelen ibilbidea abiatuko da Andre Maria Zuriaren plazaraino. Behin enparantzan, kandlekin *Euskarak 365 egun* leloa idatziko dute parte hartza animatuko diren euskaltzaleek. Egitarauaren berri jaso du ALEAK datozen orrialdeetan. Interneten, www.hirinet.net-en eskegi dute.



OIHANEDER

FAMILIA MINTZODROMOA

AZAROAK 27, OSTIRALA, 18.00ETAN

Zabalganako euskara batzordeak eta Amezti-txiki guraso elkar-teak mintzodromoa eta umeentzako lantegiak antolatu dituzte ostirale-rako Zabalgana eskolan, 18:00etan. Ondoren, 19:30ean bertso triki-poteoa egingo dute, Irati Anda eta Ruben Sanchez bertsolariekin.



GARAION

GAZTE GOZATOPE

AZAROAK 27 (18:30) ETA AZAROAK 28 (10:00)

Garaion natura eta sorkuntza elkarteak Gazte Gozatope topaketa antolatu du asteburu hone-tarako 16 urtetik gorako gazteentzat, gozamina, sexua, harremanak, gor-putza, identitateak eta sorkuntza ardatz, esperimentaziorako eta haus-narketarako "gozagunea" sortzeko.



GOIENA

PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS

AZAROAK 29, 12:00ETAN ETA 17:30EAN

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoez *Amalur* ikuskizun berria aurkeztuko dute igandean Gasteizko Buesa Arenan, 12:00etan eta 17:30ean. Sarrerak AEKko Aix-kiria, Zadorra eta Arana euskalte-gietan eros daitezke, baita internet bidez ere (www.katxiporreta.eus).



ALEA

EUSKALDUNEN DESIREN ZUHAITZA

ABENDUAREN 3TIK AURRERA

Aabenduaren 3an 18:45ean, aldizkarietako egindako zuhai-tza inauguratuko du ALEak Oihaneder Euskararen Etxeko klaus-troan. Bertan, pertsona orok zint-zilikatu ahal izango du euskararekin lotuta duen desira, Eguberriak amaitu arte.



EGIZU

'ZERGATIK EZ?' TAILERRA

ABENDUAK 2, 12:30EAN

Norberaren hizkuntza portae-rez gogoeta pizteko eta euskararen erabilera soziala areago-tzeko, *Zergatik ez?* tailerra eskaini-ko dute Gasteizko campuseko pabilioiko kafetegian. Izena eman behar da, honako helbidean: www.ehu.es/ehuskarabanda



POZIKTIBITY

'ABESTI BAT GUTXIAGO'

ABENDUAK 4, 19:00ETAN / 21:30EAN

Lou Topet musika taldeak Har-kaitz Cano idazlearekin bate-ra egindako 'Abesti bat gutxiago' liburu-diskoa aurkeztuko dute Canok berak eta Oier Aranzabal taldeki-deak Jimmy Jazz aretoan 19:00etan. Ondoren, 21:30ean Lou Topet taldeak kontzertua eskainiko du.



SERGIO NEVADO

KANDELEN IBILBIDEA ETA KALEJIRA

ABENDUAK 3, 19:00ETAN

Euskarak 365 egun lelopean, kalejira giroan kandelen ibilbidea abiatuko da 19:00etan Oihaneder Euskararen Etxetik Andre Maria Zuriaren plazaraino; bertan, 'Euskarak 365 egun' leloa osatuko dute kandlekin parte-hartzaileek, eta ondoren argazkia egingo dute.



O.A.

ZIRK-ZARK ZIRKO EMANALDIA

ABENDUAK 3, 20:00ETAN

Gasteizko Oihaneder euskararen etxean *Zirk-zark, arabar euskaldunen zirko emanaldia* eskainiko dute abenduaren 3an, 20:00etan. Malabareak, trapezio-ariketak, akrobaziak, dantza eta zuzeneko musika eskainiko dute lurraldeko hainbat sortzailek.



AMAMA

AMAMA FILMA

AZAROA-ABENDUAN ARABAKO HERRIETAN

Amama filma doan ikusgai egongo da datozen egunetan hainbat udalerritan: Murgian (azaroaren 26an), Aramaion (27an), Ondategin (29an), Izarran (29an), Agurainen (29an), Gasteizen (abenduak 1), Laudion (abenduak 3) eta Araian (abenduak 5-6).

Araba osoan ospakizunak**ARAMAIO**

Azaroak 27 'Gazteak plazara' bertso saioa, 19:00etan Sastiñan.

Azaroak 28 Euskararen aldeko herri lasterketa (12:00) eta Aukeran dantza konpainia 20:00etan kultur etxean.

LEGUTIO

Abenduak 4 Legutioko ahozko ondarearen aurkezpena eta euskaldun zaharrei omenaldia, 20:00etan kultur etxean.

IZARRA (URKABUSTAIZ)

Azaroak 29 Euskararen eguna ospatzeko jarduerak egun osoan zehar.

Abenduak 11 Esaera zaharren txapelketa 19:00etan frontoian hasita.

ONDATEGI (ZIGOITIA)

Abenduak 4 Txapelparty lehiaketa 18:30ean Ondategiko kultur etxean. Ondoren, muralen erakusketa.

Abenduak 12 'Zergatik ez?' tailerra, (10:30) eta 'Itsasoaren emazteak' dantza eta antzerki ikuskizuna (19:00).

MURGIA (ZUIA)

Abenduak 10 Mikel Markezekin solasaldi musikatua, 19:30ean liburutegian.

TREBIÑU

Abenduak 2 Magia ikuskizuna 'Asier Kidam' magoarekin, 14:15etan eskolan.

GUARDIA

Abenduak 5 Triki poteoa (13:00), kantu bazkaria Samaniego jauregian (15:00), talo tailerra plaza nagusian (18:00), disko festa plaza nagusian (20:00) eta poteoa (21:00).

ARTZINIEGA

Abenduak 28 Ibilaldia (08:00), triki-bertso poteoa frontoitik hasita (12:30), kantu bazkaria eta dantza plaza Goiko plazan, eta Xilipurdi pailazoak Artekalen (18:00).

Abenduak 4 'Zergatik ez?' tailerra, etnografia museoan 19:00etan.

AMURRIO

Azaroak 27-abenduak 4: hogeita hamar jarduera baino gehiago (www.amurrio.org).

AGURAIN

Azaroak 28 Bertso saioa Zabalarten (20:00).

Azaroak 29 Dantza moderno saioa igerilekuetan 12:00etan.

Abenduak 3 'Erdaldun berrien kluba' bakarriketa, 19:00etan Zabalarten.

Abenduak 4 Magia-poteoa San Juan plazan 19:30ean.

DULANTZI

Azaroak 29 Zinema euskaraz: *Yugo eta Laia* (17:99) eta *Loreak* (19:00).

Abenduak 1 'Euskara oparitu' hitzaldi-erakusketa 17:30ean.

Abenduak 3 Magia-poteoa plazan (19:30).

BARRUNDIA

Azaroak 27 Bertso-afaria Larreako Aldaia jatetxean 22:00etan

Abenduak 5 Herri hirolak, txaranga eta tirolina 11:30etik aurrera Ozetan.

ARAIA (ASPARRENA)

Abenduak 3 'Txistekalari eta txokolatada' 17:00etan Araia plaza.

Abenduak 4 Txapa tailerra, dantza plazan eta 'Kantuz-kantu' herriko plazan.

Abenduak 5 Pilota txapelketa (10:00), familia jolasak plazan (11:30), 'Kango' saioa (12:30) eta Herri bazkaria Iturberon.

Lotsaren itzala

Alemaniko naziak eta Italiako faxistek azterna utzi zuten Gasteizen, frankistei gerra zibila irabazten lagundu ondoren; material historikoak eta marrazkiak bildu dituzte orain erakusketa batean, Dendaraban eta Antso Jakitunean. **I. ESTARRONA** GASTEIZ

Antso Jakituna Fundazioak antolatuta, *Abangoardia arriskutsuak. Alemania nazia eta Italia faxista Gasteizen (1936-1939)* erakusketa egongo da ikusgai datorren abenduaren 9ra arte Araba aretoan (Dendaraban) eta Antso Jakituna Fundazioan (Betoñun). Bertan, nazi eta faxistek Gasteizen utzitako aztarnak ikus daitezke hainbat argazki, egunkari, material historiko eta erakusketa honetarako propio egindako marrazkien bidez. Erakusketan Xabier Sagasta marrazkilari eta arkitekto gasteiztarrek parte hartu du, bai eta Virginia Lopez de Maturana eta Guillermo Marin historialariek ere.

Gerra zibilean frankisten garai-pena ziurtatzeko, gerrako materiala eta militarrek bidali zituzten Alemania naziak eta Italia faxistak. Erakusketaren antolatzaileek adierazi dutenez, herrialde haiek "eten-gabe aipatuta agertzen dira prentsan, herri-kantuetan, irratan, alemaniar nahiz italiar jatorriko filmeetan eta alemaniar produktuen gaineko publizitatean". "Edozein motatako propagandak balio zuen Gasteizko biztanleei herrialde haien garrantzia barnerarazteko", diote. Horrez gain, agintari berriek estetika nazi-faxis-



Dokumentu historikoekin batera, Xabier Sagastaren irudiak ikusi daitezke | XABIER SAGASTA

ta baliatu zuten. Hala, Gasteizko biztanleek besoa gora agurtzen ikasi zuten, bai eta Alemaniako ereserkia abesten ere, gaztelaniara itzulita.

Esanguratsuak izan ziren, era berean, Francoren erregimena aintzatetsi zuten potentziei omenaldia egiteko antolatu zituzten desfileak. Arabako hiriburuko kale nagusiak alemaniar eta italiar kutsuko goiburuz, musikaz eta ikurrez bete zituzten.

Ordutegia

ABENDUAREN 9RA ARTE

Dendaraban Astelehenetik larunbatera, 18:00etatik 20:30era; jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30etara.

Antso Jakitunean Astelehenetik ostegunera, 09:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 18:00etara; ostiraletan, 08:00etatik 15:00etara.

ARABAKO AKTUALITATE GUZTIA
ASTELEHENETIK OSTIRALERA
GOIZEKO 10:00ETATIK 11:00ETARA

HALA BEDI BI IRRATIAN
88.9FM

ARABA
hizpide

ETA 09:00ETATIK 10:00ETARA
HIZPIDEA
EUSKARAZKO MAGAZIN NAZIONALA

@ArabaHizpide

www.halabedi.eus

640 07 36 13

Azken zozketako irabazlea

Vendetta taldearen kontzertua

Marian Sanchez Martinez (Gasteiz).



ZOZKETAK

Harpidedunentzat eskaintzak



Parralen bazkaria

ALEAK **bi lagunentzat** bazkaria zozketatuko du Gasteizko **Parral** tabernan, astean zehar bazkaltzeko. Eman izena **abenduaren 7a** baino lehen. Hilaren 11n jakinaraziko diogu irabazleari zozketan saritua izan dela.



Sorkun kontzertuan

Sorkunek kontzertua eskainiko du Jimmy Jazzen, **abenduaren 11n** (ostirala), 21:30ean. Sarrera bikoitza eskuratzeko, eman izena **abenduaren 7a** baino lehen. Hilaren 8an jakinaraziko dugu irabazlearen izena.



Bertsok Salburun

Salburua auzoko Sarburu kultura elkarteak bertso-afaria antolatu du **abenduaren 11n** (ostirala). Sarrera bikoitza lortzeko, eman izena **azaroaren 30a** baino lehen; abenduaren 4an jakinaraziko dugu irabazlea.

Eman izena!



695 63 28 62



erredakzioa@alea.eus

Zozketan parte hartzeko, zehaztu zure izen-abizenak eta zer zozketatan parte hartu nahi duzun. Bestalde, nahi izanez gero (ez da derrigorrezkoa), bidali ALEA jasotzeko interesa izan dezakeen zure **lagun baten kontaktua**, eta berarekin harremanetan jarriko gara, konpromisorik gabe harpidetza eskaintzeko.

KOMERTZIALA (KOM_AR_2015 erreferentzia) BERRIA Taldeak komertziala behar du Araban.

Eskatzen da:

- Komertzial lanetan esperientzia izatea.
- EGA edo baliokidea den euskara maila.
- Araban bizi eta herrialdea ongi ezagutzea.
- Izaera dinamikoa eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Gidabaimena eta autoa izatea.

Eskaintzen da:

- Laneko kontratua, Gizarte Segurantzarekin.
- Soldata finkoa, komisioz osatua.

Interesa duenak bidali curriculumak gizabaliabideak@berriataldea.net helbide elektronikora, KOM_AR_2015 erreferentzia zehaztuta, 2015eko azaroaren 30a baino lehen.



GASTEIZ

Eñaut Iraeta

"Handitzen joan den itsasontzi honen norabidea argitzen duzun bitartean, lagun askoren grinak eta ilusioak tartean, argi duzulako zein den gidatzen zaituen itsasargia... Zorionak, Eñaut! GEUko lagunen partez".

Norbaiti zure mezua
helarazi nahi diozu?
erredakzioa@alea.eus
625 231 603



GASTEIZ

Intza Sukia Kintana

"Etxeko txikia zara eta gure bizitzako altxorrik handiena. Zorionak amatxo eta aita txoren partez Intza!".



GASTEIZ

Iban Aydillo

"Euskara ikasten dabil gure laguna eta oraingoz Itsasegiaren zinta irakurrita nahikoa duela esaten du... baina seguru laster ALEA irakurle amorratua bilakatuko zaigula. Txapela buruan eta... edo ez zen horrela... Zorionak Terrilas guztien partez!".

BERTSO-AFARIA SALBURUAN
ABENDUAK 11, OSTIRALA, 21:30EAN TIC-TAC TABERNAN (ATENAS IBILBIDEA 4)
*BEROTZEN HASTEKO 20:00ETAN KOPIA TABERNAN ELKARTUKO GARA.

//FREDI PAIA
//IÑAKI VIÑASPRE

SARRERAK BERTAN SALGAI 17€



ALEA

'Amama' pelikula

Aramaio. Ostirala 27, 22:30ean, kultur etxean.

AZAROAK

27

ABENDUAK

3

**EUSKARAREN
AGENDA**

MUSIKA

**EH Sukarra eta Hobetu
Beharra**

Gasteiz. Ostirala 27,
21:00etan, gaztetxean.

Amarauna

Amurrio. Ostirala 27,
21:30ean, gaztetxean.

Atxurre

Laudio. Ostirala 27, 22:00etan,
Drumgorri aretoan.

**Enkore, Txapelpunk eta
Emon**

Gasteiz. Larunbata 28,
19:30ean, gaztetxean.

Nolatan


Manurga. Astelehena 30,
24:00etan, plazan.

Kasernarat

Gasteiz. Asteazkena 2,

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak

Gasteiz. Igandea 29, 12:00etan eta 17:30ean, Buesa
Arena pabiloian. 'Amalur' ikuskizuna aurkeztuko dute.



AIARALDEA ATARIA

19:00etan, gaztetxean.

BERTSOLARITZA

Gazteak Plazara saioa

Aramaio. Ostirala 27,
19:00etan, Sastiñan. Maddalen
Arrausi, Xabi Igoa, Iñaki
Lertxundi eta Jon Sanchezekin.

Bertso afaria

Gasteiz. Ostirala 27,
21:00etan, Basajaun tabernan,
Arriaga auzoan. Jagoba
Apaolaza eta Oihane
Perearekin.

Bertso afaria

Larrea. Ostirala 27, 22:00etan,

Larrea jatetxean. Izar
Mendiguren eta Xabi Paiarekin.

Bertso saioa

Agurain. Larunbata 28,
20:00etan, Zabalarte etxean.
Irati Anda, Ruben Sanchez eta
Julio Sotorekin.

Bertsotrama

Gasteiz. Asteartea 1,
20:30ean, Parral tabernan. Igor
Elortza eta Jon Maiarekin.

**'Etxalde baten
okupazioaren argazki
kronika' diaporama**

Gasteiz. Astelehena 1,
20:30ean, Zurrupa tabernan,



ALEA

Intacto jaialdia

Gasteiz. Ostirala 27, 18:30etik aurrera, Artium museoan. Hiru egunez, bederatz

lan eszeniko original eta probokatzaila ezagutzeko aukera emango du Intacto jaialdiak, Factoria de Fuegos-ek

antolatutako hizkuntza eszeniko berrien erakustaldiak. Nui taldearen *Besteok* piezarekin abiatuko da, 19:30ean.

Anguleman. Oihaneder eta Gasteizko Mintzalaguna taldearen eskutik.

HAURRAK

'Kantuz eta kontuz' ipuin musikatua

Gasteiz. Larunbata 28, 12:00etan, Abetxukuko gizarte etxean. Antton Aranburu eta Sonia Verarekin.

MariOlas ipuin kontalaria

Laudio. Ostirala 27, 17:30ean, Aretako kultur etxean. Sorgin Zapatua egitasmoaren barruan.

Kiki, Koko eta Moko pailazoak

Urrunaga. Igandea 29, 12:30ean, herriko plazan.

'Asterix, jainkoen egoitza' pelikula

Amurrio. Igandea 29, 17:30ean, Amurrio antzokian.

'Ezet asmatu' ipuina

Gasteiz. Asteazkena 2,

18:00etan, Ariznabarra gizarte etxean. Eneko Etxegarai kontalariarekin. 3-7 urte bitartean.

IKUS-ENTZUN

'80 egunean' pelikula

Gasteiz. Igandea 29, 19:00etan, gaztetxean.

'Amama' pelikula

Agurain. Igandea 29, 19:30ean, Harresi aretoan.

BESTE HITZORDU BATZUK

MUSIKA

Musikene Orkestra eta Donostiako Orfeoia

Gasteiz. Ostirala 27, 20:00etan, Principal antzokian.

Legendary Shack Shakers eta The Blind Crows

Gasteiz. Ostirala 27, 22:00etan, Hell Doradon.

Craker

Gasteiz. Larunbata 28, 22:00etan, Hell Dorado aretoan.

ANTZERKIA

'Solitudes'

Gasteiz. Ostirala 27, 20:20ean, Ibaiondo gizarte etxean. Kulunka taldearekin.



ABENDUAK 3 EUSKARAREN EGUNA

Hamaika jarduera bete euskara Gasteizen

AZAROAK 27, 18:00

FAMILIA MINTZODROMOA

Zabalgana eskola. Gurasoak berbetan eta umeentzako lantegiak. Bertso triki-poteoa (Irati Anda eta Ruben Sánchez)

AZAROAK 27, 18:30

AZAROAK 28, 10:00-19:45

GAZTE GOZATOPA

Sexuan, harremanetan, emozioetan, aereoetan, sorkuntzan... euskaraz bizi-bizi gozatu! Aisialdia eta euskara gustuko duten 16 urtetik gorakoentzat

AZAROAK 29, 12:00 eta 17:30

AMALUR - PIRRITX, PORROT ETA MARIMOTOTS

Buesa Arena
Sarrerak salgai: AEK (Aixkiria, Zadorra, Arana) eta www.katxiportalretas.eus

ABENDUAK 1, 20:00

AMAMA filma

Florida zinemak
Gonbidapenak: Oihaneder Euskararen Etxea

ABENDUAK 2

10:00 MINTZO-TXIODROMOA

Gasteizko hainbat zentrotako ikasleek hezkuntza, lan mundua, euskara, aisialdia eta kultura izango dituzte mintzagai Oihaneder Euskararen Etxea, ur biltegia

12:30 ZERGATIK EZ? LANTEGIA

Euskararen erabilera soziala bultzatzeko tailerra. Izen-ematea: www.ehu.eus/ehuskarabanda

ABENDUAK 3

10:30 EUSKARAREN GINKANA GASTEIZEN [Finala]

Gasteizko hainbat zentrotako ikasleek finala jokatu dute.
Oihaneder Euskararen Etxea, ur biltegia

13:00 MUXUA antzerki-lana

Tanttaka. Principal antzokian
Gasteizko hainbat zentrotako ikasleentzat

18:45 EUSKALTZALEON DESIREN ZUHAITZA

Euskaltzale guztiok desio eta nahiak jarri ahal izango ditugu zuhaitzean zintzilik Oihaneder Euskararen Etxeko klaustroan

19:00 EUSKARAK 365 EGUN

Oihaneder Euskararen Etxetik Andre Maria Zuriaren plazarako kalejira. Kandelen ibilbidea

20:00 ZIRK-ZARK

Arabar euskaldunon zirko emanaldia
Oihaneder Euskararen Etxea, ur biltegia
Gonbidapenak: Oihaneder Euskararen Etxean

ABENDUAK, 4

LOU TOPET. ABESTI BAT GUTXIAGO

19:00etan. Jimmy Jazz aretoan
Liburu-diskoaren aurkezpena
Harkaitz Cano + Oier Arazanbal
21:30ean. Lou Topet. Kontzertua
Gonbidapenak: Hor dago! eta Oihaneder Euskararen Etxea.

Gasteiz bete euskara egunero